



baliabideak
material didaktikoa



Gure ingurunearen azterketa soziologikoa

Jose Inazio Imaz Bengoetxea

Ikasle kaiera

IKD baliabideak 1 (2011)

GURE INGURUNEAREN AZTERKETA SOZIOLOGIKOA

Ikasleentzako gida

Proiektuak erantzu beharreko galdera

Nolakoa da, eta nola aldatu da, zure auzo, herri edo eskualdea?

Proiektuaren aurkezpena edo deskribapena (enuntziatua)

Zuen herriko udaletxeak, hurrengo urteetarako bere plan estrategikoaren barnean, hezkuntzaren egoeraren diagnostiko edo erradiografia bat egin nahi du (zer esan daiteke hezkuntzari buruz? Arlo horretan zeintzuk izan beharko lukete lehentasunak? Zein hezkuntza proiektu eta ekipamentuk izan beharko lukete lehentasuna?).

Horretarako, eta hezkuntza eta gizartearen arteko harreman eta eraginen jakitun, diagnostiko horren lehendabiziko zati bat prestatzea eskatu dizuete: herriaren azterketa soziologikoa.

Justifikazioa

Hezkuntza ulertzeko, beharrezkoa da kontestu soziala ezagutzea, kontestu horrek eragin handia baitu hezkuntzarengan.

Horregatik, hezkuntza arloko profesional eta aditu izateko prestatzen ari zaretenontzat, beharrezkoa da errealitate soziala zientifikoki eta kritikoki aztertzen jakitea. Hori da proiektu honetan ikasiko duzuen.

Proiektuaren helburuak

Proiektuaren helburu nagusia oraintxe aipatu duguna da: hezkuntzaren kontestu soziala zientifikoki eta kritikoki aztertzen ikastea.

Hortaz gain, honako konpetentzi hauek landuko dira proiektu honekin:

- Komunikazio gaitasunak lantzeko, egindako lanak idatziz eta ahoz aurkezten ikastea
- Asignaturarako interesgarria den informazioa bilatzen eta ikertzen jakitea

- Taldean lan egitea.
- Ikasketarako interesa eta jarrera positiboa erakustea.

Proiektuaren planifikazioa

Proiektuak gure asignaturakoa azken bost asteak hartuko ditu.

11. astean, proiektua aurkeztuko dugu, bost pertsonaz osatutako taldeak egingo ditugu, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza Kooperatiboa zer den ikasiko dugu, eta talde bakoitzaren “konpromezu dokumentua” prestatuko dugu (lanak nola banatuko diren, noiz eta non elkartuko diren, etab.).

Proiektuan erabili beharreko ezagutzak, batez ere 12 eta 13. asteetan landuko ditugun gaiak izango dira: “zergatik eta nola aldatzen dira gizarteak?” (aldaketa soziala) eta “nolakoa da gure mundua?” (globalizazioa).

Proiektuaren lehenengo astetik aurrera, irakasleak proposatutako lehenengo gidioa (1. eranskina) zabaltzen joan beharko duzue. Informazio bilaketa egin ondoren, 13. astean proiektuaren lehenengo berradurre bat entregatu beharko da. Lehenengo berradurre hau zuek autoebaluatuko duzue, beste talde batek koebaluatuko du, eta azkenik irakasleak ere begiratuko du.

Astebete edukiko duzue beharrezko zuzenketak egin eta aurkezpenak prestatzeko .

Azken bi asteetan egingo ditugu aurkezpenak, eta baita prozesuari buruzko azken hausnarketak, azken tutoretzak eta azken ebaluaketak.

Entregatu beharko diren ariketak

- Proiektuaren lehen dokumentua: taldeko partaideen konpromezuak (lanak nola banatuko diren, noiz eta non elkartuko diren, etab.), 11. astean.
- Proiektuaren lehendabiziko gidioi edo berradurre bat (12. astean).
- Azken txostena (13. astean)
- Azken txostenaren aurkezpena (14 eta 15. asteetan)

Proiektuaren ebaluazioa

Proiektu hau ondo egiteko asignaturako orduen herena (40 ordu) lan egitea aurreikusten da, eta ondorioz, ebaluaketan ere asignaturako ebaluketa osoaren %30 suposatuko du.

3 puntu horiek aurkeztu beharko duzuen azken txostenaren eta txosten horren aurkezpenaren artean banatuko dira:

Txosten idatziak gehienez 2 puntu mereziko ditu (taldeko nota izango da).

Aurkezpenak berriz gehienez puntu bat (talde lana eta banaka egindako aurkezpena hartuko direlarik kontutan).

Eranskinean daukazue ebaluaziorako erabiliko diren fitxa edo rubrikak (2. eta 3. rubrikak).

Nota, autoebaluazioa, koebaluazioa eta irakaslearen ebaluazioa kontutan hartuaz jarriko da.

Hortaz gain, gainontzeko ariketak ere (konpromezu dokumentua, autoebaluaketak, koebaluaketak eta prozesuari buruzko hausnarketak) entregatu beharra daude proiektua gainditu ahal izateko, eta gainera, atzerapenarekin entregatzeak penalizazio bat edukiko du azken notan.

Proiektua garatzeko beharrezkoak diren materialak

- Proiektua aurkezten zaienean, Proiektuaten Oinarritutako Ikaskuntza Kooperatiboari buruzko testuak erabiliko dira.
- Era berean, beraiek adibide edo eredu moduan kontsultatu ahal izateko, aurreko urteko proiektu interesgarrienak eskuragarri izango dituzte (moodle eta paperean egongo den “proiektu bankua edo liburutegia”).
- Proiektua nondik bideratzen hasi jakiteko, irakasleak lehendabiziko gidoi bat emango die (1. Eranskina).
- Asignaturako apunteak (5 eta 6 gaiak) eta irakasleak proposatutako testuak:
 - GIDDENS A. (2007): “La globalización y el mundo en cambio”, in *Sociología*. Madrid: Alianza Editorial, 53-90.
 - BAUMAN, Z. (2003): *Modernidad líquida*. México: F.C.E.
 - BECK, U. (1998): *¿Qué es la globalización?. Falacias del globalismo, respuestas a la globalización*. Barcelona: Paidós.
 - CASTELLS, M. (1997): “Conclusiones”, in *La era de la información*. Madrid: Alianza Editorial.

ERANSKINA: INFORMAZIO BILA HASTEKO IRAKASLEAK PRESTATUTAKO GIDOIA

1. Sarrera: demografia, historia eta geografia

Non dago? “itsaso ondoan egoteak eragina izan du hontan...”, “mendi artean dagoenez...”, “bi hiri hauen artean kokatuta egotean...”. Argazki (gutxi) batzuk, bideoen bat...

Historiaren errepasso laburra, edo/eta gertakizun historiko zehatz baten/batzuen azpimarraketa (bereziki garrantzitsua izan delako/direlako). Orrialde bat (ahoz bost minutu) baino gehiago ez.

Zenbat gera? Nola banatuta: adinkako (portzentaiak), auzokako edo herrikako banaketa...

Historiari dagokionez, elkarrizketa bat egin beharko da. Minimo 10 minutukoa. Nolako zen eta nola aldatu da inguru hau? (auzo, herri, eskualdea...). Erabili bigarren gaieko ikuspegi soziologikoa (gizarte tradizionala, industrial-moderno, postindustrial-postmoderno).

Demografian datu hauek bilatu beharko dira: 18 urtetik beherakoak, 18-65 urte artekoak, eta 65 urtetik gorakoak. Aztertzen ari garen inguruan, EAE edo EHan, eta Europa edo munduan.

	Ibarran	EAE edo EH	Europa-Mundua
18 urtetik beherakoak (%tan)			
18-65 urte artekoak			
65 urtetik gorakoak			

2. Politika-Ekonomia

Udalaren egitura, hauteskundeetako emaitzak, partidu-erakunde-eztabaida politikoak...

Zertatik bizi da jendea? Enpresa nagusiak. Datu sozio-ekonomikoak. Adibidez klase ezberdintasunari buruzko daturik eskuratu al liteke? Bestela inkesta txiki bat egin liteke inguruko jendearekin: “zenbat irabazten duzu? 1.500 baino gutxiago, 1.500-3.000

artean, 3.000tik gora”, “zenbat pertsona etxean eta zenbatek lan egiten dute?”, “zenbat ordenagailu?”, “zenbat kotxe?”, “ze mota-kategoriako lana?”...

3. Kultura, etorkinak, aisialdia, pertsonaiak, jaiak

Kultur ekitaldi eta erakunde nagusiak (edo/eta baten bat/batzuk bereziki azpimarratu).

Etorkinen gaiari dagokionean, honako datuak bilatu behar dituzue: etorkin kopurua %tan aztertzen ari zareten lekuan, EAE-EHrekin eta Europa-Munduarekin konparatuta.

	Ibarran	EAE edo EH	Europa-Mundua
Etorkinak (%tan)			

Etorkinen gaian ere, gutxienez bi elkarrizketa edo eztabaida talde egin behar dira (10 minutu gutxienez, hortik gora nahi adina):

Bat, etorkinekin beraiekin: zergatik etorri ziren, hasierako momentuko sensazioak, bertakoen jarrerak, beraien egoera eta sensazioak momentu honetan, etorkizunerako helburuak...

Bestea bertan jaiotakoekin: zer pentsatzen duzu/e etorkinei buruz? Gatazkak, erronkak, harremanak...

Hortaz gain: jatorri nagusiak, elkarteak...

4. Hezkuntza

Pedagogia eta Gizarte Hezkuntza graduak ikasten ari garenez, lan hontako arlorik garrantzitsuena izan beharko lukeena: hezkuntza formaleko instituzio eta proiektuak, eta bestelakoak (zer izaera, zenbat ikasle, hezkuntza proiektuak...). Begiratu web orriak, dokumentu idatziak, hitz egin jendearekin...

Hezkuntzaren gaian ere gutxienez elkarrizketa bat egin beharko da adituren batekin: eskola edo hezkuntza zentru bateko zuzendaria, irakasle edo langilea; edo ikasle ohiak... Gutxienez 10 minutu. Haien iritziak hezkuntzari buruz, erronka nagusiak, irtenbideak...

5. Ondorioak

(*) Datu iturri posibleak: udaletxeko web orria, INE, Eustat, Euskal Map, Gaindegia...



Imaz, J. I. (2011). Gure ingurunearen azterketa soziologikoa. <http://www.ikd-baliabideak/ik/Imaz-04-2011-ik.pdf>



Aitortu - EzKomertziala - PartekatuBerdin (by-nc-sa): Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili, ezta ere sortutako lan eratorriak; sortutako lan eratorria banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdi-berdineko baten mende.